

## ERAKUNDEEN ERREGISTROA: HELBURUA ETA EREMUA

Erakunde Erregistroa konstituzioen inskripzioaz, Erakundeen aldaketa zein disoluzioaz eta Erakundeen bateratzeaz arduratzen den bulego publikoa da. Hain zuzen, haien estatutuetan hala adierazten duten Euskadiko enpresez arduratzen dira.

Asoziazio politikoak, sindikatuak, organizazio enpresarialak, elizak, konfesioak zein komunitate erlijiosoak, kirol federazioak, ondasun komunitateak, sozietate kontratupean agintzen diren erakundeak, kooperatibak, mutualitateak, enpresen arteko denborazko elkarteak eta interes ekonomikoko elkarteak salbuespen izango dira.

## ERAKUNDEEN KONSTITUZIOA: SORTZE AKTA

Kide guztiek onartutako estatutuen araupeko erakundeen sorrera helburu, erakundeak hiru pertsonen arteko akordioen bitartez sortzen dira. Akordioa akta bidez formalizatuko da eta bertan elkartzeko asmoa jaso behar da (dokumentua publikoa zein pribatua izan daiteke). Dokumentu honetaz gain, erakundearen Estatutuak aurkeztu beharko dira.

### IZENDAPENA

Izendapenak ezin izango du identitateari, motari edo izateari buruzko termino zalantzazurik eduki, batez ere pertsona juridikoen hitzen, kontzeptuen, sinboloen, akronimoen eta bestelakoen erabilerekin.

Legeen edo pertsonen oinarrizko eskubideen aurkako izendapenak ez dira onartuak izango.

Ezin izango dute antzekotasun zalantzazurik izan erregistroan izena eman duten erakundeekin, beste pertsona publiko zein pribatuekin, erakunde izandunekin edota marka erregistratuekin (interesatuen, oinordekoen edo titularren kontsentimendua salbuespen).

Pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoak zein pribatuak, erakundeak sortzeko eta hauetan parte hartzeko eskubidea izango dute (martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 3. artikulupean -asoziazio eskubidearen erregulatzailerak- eta ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Erakunde Legepean).

Pertsona fisikoek obratzeko eskubidea izan behar dute. Eskubide hau erabiltzeko, pertsona fisikoak ezin daitezke lege-baldintzapean egon.

Emantzipatu gabeko 14 urte baino gutxiagoko adin txikikoek haien tutore zein gurasoen kontsentimendua izan beharko dute (dokumentalki baieztatua).

Elkartze izateko Pertsona Juridikoek haien eskumeneko organoen akordio zehatza beharko dute. Izateko instituzionalekoek aldiz, haien organo errektorearena.

## ESTATUTAK, EDUKIA

martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 3. artikulupean (asoziazio eskubidearen erregulatzailerak) eta ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Erakunde Legean azaltzen denaren arabera:

Estatutuek hurrengo mutur minimoak bete beharko dituzte:

- Erakundearen Izendapena. Izenak xede estatutarioei erreferentzia egin behar die edo behintzat xede nagusiari. Izenak beste erakundeez bereizteko balio izan beharko du. Xedeak zehazki aipatu behar dira.
- Helbide soziala. Helbide soziala leku publiko bat izan ezkerro, honen erabilpena baimentzen duen ziurtagiria erantsi beharko da. Bazkide baten helbidea izan ezkerro, behin-behineko karakterra izango du.
- Erakundearen xedeak eta aktibitateak zehazki azaldu beharko dira.
- Bere funtzioak burutuko dituen eremu territoriala ezin daiteke EAE-tik kanpo egon.
- Erakundearen iraupena (denbora mugagaberako sortuak izan ez diren erakunde kasuan).

- Gobernu eta ordezkari organoak. Hauen konposaketa, arauak, kideen hautaketa eta ordezkapen prozedurak, karguen atribuzioak eta iraupenak, kargutik bazter uzteko arrazoiak, akordioak deliberatzeko eta burutzeko modua, akordioak egiaztatzeko fakultatea duten pertsonen eta karguen

- hautaketa, organoak konstituituta geratzeko errekerimenduak eta gobernu organoen sesioak konbokatze edo gai-zerrendako asuntoak proposatzeko autoritatea duten kide kopurua.
- Onarpen errekerimenduak eta modalitateak, bazkideen baja eta separazioa eta, hala bada, hauen klasea. Bazkideek haien kuota ordaindu ezean, izan ditzaketen ondorioak definitu daitezke ere.
  - Administrazio, kontabilitate eta dokumentazio erregimena, urte asoziatiboaren urte itxiera baita ere.
  - Santzio-erregimena.
  - Bazkideen eskubideak eta betebeharrak. Modalitateen arabera, desberdinak izan daitezke.
  - Hasierako patrimonioa eta erabili litezken errekurtsio ekonomikoak.
  - Estatutuen modifikazio prozedura.
  - Disoluzio kausak. Disoluzio kasuan, patrimonioaren norakoa zehaztu beharko da (ezin dezake erakundearen ez-irabazizko karakterrekin apurtu).

Estatutuek promotoreek beharrezko deritzoten edozein disposizio edo bidezko kondizio izan dezakete – beti ere, legeekin eta erakundearen printzipioekin bat etorri ezkeror-.

ERREGISTRO INSKRIPZIOA  
EFEKTUAK

Erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Erregistroan izena emango dute, publizitate efektu modura. Helburu honekin, Erregistroan Konstituzio Aktaren kopia aurkeztuko da. Bertan bazkide fundatzaile guztien sinadura originala agertu behar da eta, honetaz gain, Erakundearen Estatutuen kopia Presidentearen eta Zuzendaritza Batzordeko Ordez kariaren sinadura originalekin aurkeztu beharko da. Guzti hau, instantzia modura Erakundeen Erregistroa bidali behar da, Estudio Zuzendaritzara eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Erregimen Juridikora atxikituta.

Aipatutako dokumentazioaz gain, Zuzendaritza Batzordeko kideen Nortasun Agiri Nazionalen fotokopiak erantsi beharko dira.

Inskripzioak publikoa egiten du konstituzioa eta Erakundeen Estatutuak.

**ASOZIAZIOEN ERREGISTRO**  
**BULEGOAK**

ARABA:

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.  
Donostia-San Sebastián, 1  
01010-VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa: 945-019087  
e-posta: just-jurid-alava@ej-gv.es

GIPUZKOA:

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.  
Vitoria-Gasteiz, 3-3º  
20018-DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
Telefonoa: 943-022951/ 943-022952  
e-posta: just-jurid-gipuzkoa@ej-gv.es

BIZKAIA:

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.  
Gran Vía, 85 pta. baja  
48011-BILBAO  
Telefonoa: 94-4031371/ 94-4031372  
e-posta: just-jurid-bizkaia@ej-gv.es

**XXXXX** jaunak/andreak, **77777777X** NAN zenbakiduna, bere helbidea hurrengo delarik (**Durango - Bizkaia-, Lehendakari Aguirre Kalea, 5. zenbakia, 6. pisua eta 48200 PK**) eta bere telefono zenbakia 698789789 delarik; **XXXXX** Erakundearen Ordezkar den aldetik.

ADIERAZTEN DU:

Aipatutako erakundea martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 3. artikulupean (asoziazio eskubidearen erregulatzaila) eta ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Erakundeen Legepean izan da sortua beharrezko dokumentazioa aurkeztuz:

- Konstituzio Akta. Kopia bitartez.
- Estatutuak. Kopia bitartez.
- NAN fotokopia (sustatzaileena).

Beraz,

ESKATZEN DU:

Erakundeen Erregistroa aipatutako norma legalean aurreikusita.

Donostian , 2015ko .....an

Sinatua:

GIPUZKOAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROEN BULEGOA.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Vitoria-Gasteiz kalea, 3-3.a  
20018 DONOSTIA - SAN  
SEBASTIAN

KONSTITUZIO AKTA

ERAKUNDEA.....

.....jauna/andrea

NAN.....

HELBIDEA.....

NAZIONALITATEA.....

SINADURA.....

XXXen, 2015ko urriak 15ko  
goizeko/arratsaldeko XXXetan, aurretik  
aipatutako pertsonak batzartzen dira, guztiak  
adin nagusikoak izanik eta haien izenean  
arrituz.

D/Dña.....

.....jauna/andrea

NAN.....

HELBIDEA.....

NAZIONALITATEA.....

SINADURA.....

Batzarra antolatzeko helburuaz,  
..... jauna/andrea izango da  
batzarreko burua eta  
..... jauna/andrea  
Ordezkarria.

.....jauna/andrea

NAN.....

HELBIDEA.....

NAZIONALITATEA.....

SINADURA.....

Presidenteak hitza hartzen du batzar honen  
helburua Erakunde bat sortzea dela adieraziz -  
Eusko Jaurlaritzan onartutako eta, ondoren,  
uztailak 12ko 134 zenbakidun EHAA  
argitaratutako martxoaren 22ko 1/2002 Lege  
Organikoaren 3. artikulupean (asoziazio  
eskubidearen erregulatzailerak) eta ekainaren  
22ko 7/2007 Euskadiko Erakunde  
Legepean-.

.....jauna/andrea

NAN.....

HELBIDEA.....

NAZIONALITATEA.....

SINADURA.....

Ondoren, Erakundearen Estatutuak irakurriko  
dira eta hauei buruzko eztabaida zabalduko  
da.

(Bazkide fundatzaile gehiago baleude,  
atzealdean jarraituko luke)

Behin deliberazioa eginda, aho batez hurrengo puntuak akordatu dira:

LEHENA: ..... deituriko Erakundearen konstituzioa, haien helbide  
soziala.....n egonda. Erakundearen xedea Estatutuen ..... artikuluan dago zehaztuta,  
edozein pertsonari Erakundearen sartzeko aukera boluntarioa eskainiz.

BIGARRENA: Estatutuak onartzea, erakundearen barne-erregimena eta funtzionamendua definituz. Testu  
hau Akta honetara erantsiko da.

HIRUGARRENA: Erakundearen kudeaketaz arduratuko den Zuzendaritza Batzordearen hautaketa, kide  
bakoitzaren funtzioen eta harremanen zehaztapena dokumentu honetara atxikituz.

LAUGARRENA: Erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Erregistroan izena emateko helburuaz,  
..... jaunak/andreak akta honen izenpetuen izenean edo ordezkariaren behar beste kudeaketa  
burutzeko eskubidea du. Bazkide fundatzaile guztiek sinatutako Konstituzio Akta honen bi kopia  
entregatu beharko dira. Gainera, Erakundearen Estatutuak entregatu beharko dira ere (Presidenteak  
eta Zuzendaritza Batzordeko Ordezkariek horri guztiak sinatu beharko dituzte).

Gai garrantzitsu guztiak jorrotuta, batzarra egun berdineko .....tan bukatutzat ematen da.

ERAKUNDEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

PRESIDENTEA:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

PRESIDENTEORDEA:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

ORDEZKARIA:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

DIRUZAINA:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

BATZORDEKIDE:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

BATZORDEKIDE:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

BATZORDEKIDE:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

BATZORDEKIDE:

.....jaun/andrea  
.....NAN  
.....ZENBAKIA  
ETXEBIZITZA .....

## INDICACIONES SOBRE LA UTILIZACION DEL MODELO DE ESTATUTOS

Ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Erakundeen Legeak adierazten duen bezala, Administrazioak aholkularitza tekniko eta -erakundeen konstituzioa eta asoziazionismoa errazteko helburuaz-kolaborazioa eskaini behar die edozein proiektu asoziatibo burutu nahi dutenei.

Aipatutako agindu legalaren konplimenduan, Estatutu Modeloak arau estatutarioak egiteko unean Erakundeei orientazioa eskaintzea du helburu. Hori dela eta, ezin daiteke Erakundeen auto-antolakuntzaren limitazio edo baldintzatzailerik bezala kontsideratu. Erakundeek askatasun osoz erabaki ditzakete haien Estatutuak, beste edozein organo eta komisioak. Gainera, erregimenaren erregulazioa, sesioen deialdia, "quorum"-a, akordioak lortzeko gehiengo minimoen ezarpena eta kudeaketa zein funtzionamendu gaiak erakundeen esku egongo dira (beti ere, egungo araudi markoa errespetatuz).

Bestalde, erabiltzaileek Modelo Estatutua hobeto ulertu ditzaten hurrengo prozedurak gauzatuko dira:

- a) Testuan zehar orri-oinean dauden oharrek karakter esplikatiboa dute eta Erakundeen mekanikarekin eta funtzionamenduarekin erlazionaturako gaiak argitzea dute helburu.
- b) 9, 10, 13, 14, 15, 16, 31, 35, 39, 40 eta 44 artikuluetan zehar dauden espazioek "quorum"-ri, partizipazioei, epeei eta Erakundeek askatasun osoz erabaki behar dituzten terminoei egiten die erreferentzia.

## **ESTATUTU MODELOA EZ BETE:**

**ESTATUTO MODELOTIK DEI KOPURUAK ETA ORRI-OINEKO OHARRAK EZABATU BEHAR DIRA.**

# ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

## LEHEN KAPITULUA

### IZENDAPENA

1. Artikulua- .....<sup>1</sup> izenaz eta Eusko Jaurlaritzan onartutako martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 3. artikulura (asoziazio eskubidearen erregulatzailerak) eta ekainaren 22ko 7/2007 Euskadiko Erakundearen Legearen anparatuz konstituitzen da irabazi asmorik gabeko erakundea.

Aipatutako erakundea Asoziazio Legearen, Estatutuen (hauek Legearekin kontraesanetan egon ezean noski) eta bere gobernu organoen arabera gobernatuko da. Azken hau Legearekin, Estatutuekin eta Eusko Jaurlaritzak onartutako arauzko disposizioekin -karakter osagarrikoak- bat egin beharko dute.

### **ERAKUNDEAREN XEDEAK**

2. Artikulua- Erakunde honen xedeak hurrengo hauek dira: <sup>2</sup>

.....  
.....  
.....

Ezarritako errekerimendu legalak beterik, erakundeak hurrengo aktibitateak burutuko ditu bere xedeak betetzeko helburuz:

.....  
.....  
.....

Aurretik aipatutako aktibitateak alde batera utzi gabe, Erakundeak hurrengo aktibitateak burutu ditzake bere xedeak betetzeko helburuz:

- Ondasunak batzea edota edozein motatako aktibitate ekonomikoak garatzea.
- Edozein motatako ondasunak eskuratzea, ondasunak izatea, aktoak ospatzea eta edozein generoko kontratuak izatea.
- Lege eta Estatutuekin bat datorren edozein akzio burutzea.

### **EGOITZA SOZIALA**

3. Artikulua- Erakunde honen egoitza soziala.....

....., .....n egongo da kokatua.

<sup>1</sup> Erakundearen izendapenak xedeei eta izen propio bereizgarri bati egin behar die erreferentzia. Ezin daiteke identitateari edo erakunde motari buruzko konfusioak sorrarazi lezakeen termino edo espresioak erabili, beste pertsona juridiko baten (erakunde izan edo ez) hitzak, kontzeptuak, sinboloak, akronimoak edo bestelakoak erabiliz.

Ezin daiteke legearen edo pertsonen oinarritzko eskubideen aurka doazen espresio edo deiturarik erabili.

Ezin daiteke erregistratuta dagoen beste edozein erakunderekin, pertsona juridikorekin (publikoa zein pribatua izan), egungo entitatearekin (nazionalitate espainiarrekoak izan edo ez), pertsona fisikorekin (interesatuak edo oinordekoak onartu ezean), marka erregistraturekin (titularrak hala eskatu edo akordio batera heldu ezean) nahasi litezken terminoak erabili.

Erakunde motari edo Asoziazioaren xedeei erreparatu eginez, demarkazio territorial baten deiturak (Probintzia, Lurralde Historikoak, herriak, auzoak edo bestelakoak) erabiltzerakoan, patronimiko espezifiko bat erabiliko da erakundea beste demarkazio berdina erabili izan duten erakundeez bereizteko. Gauzak horrela, demarkazio izenaren bidegabeko jabetzea saihestuko da.

<sup>2</sup> Generikoak saihestu beharko dira, ahalik eta deskripzio zehatzena ahalbidetuz.



Batzar Nagusiarekin hala adostu ezker, erakundeak beste lokal batzuk izan ditzake Autonomia Erkidegoan. Zuzendaritza Batzordeak egoitza sozial edo lokal aldaketarik erabaki ezker, helbide berria Erakunde Erregistroan jakinarazi beharko da.

## **ÁMBITO TERRITORIAL TERRITORIALA**

4. Artikulua- Erakundeak <sup>3</sup> ..... eremu territorialean burutuko ditu bere funtzio nagusiak.

## **IRAUPENA ETA KARAKTER DEMOKRATIKOA**

5. Artikulua- Erakundea karakter iraunkorrarekin geratzen da sortua. VI Kapituluaren diogenaren arabera edo Legeetan aurreikusitako edozein kausagatik, Erakundea Ohiz Kanpoko Batzar Nagusiaren akordioaz disolbatuko litzateke soilik.<sup>4</sup>

**Erakundearen barne-antolaketak eta funtzionamenduak demokratikoa izan behar du, pluralismoa errespetatuz. Erakundearen oinarritzko eskubidearen edozein aspektu alde batera uzten duen paktua, disposizio estatutarioa edo akordioa baliogabea izango da plenoetan.**

## **BIGARREN KAPITULUA**

### **ÓRGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN<sup>5</sup>**

6. Artikulua- Erakundearen gobernu eta administrazioa hurrengo orano kolegiatuen esku egongo da <sup>6</sup>:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo goren bezala.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza permanentearen organo kolegiatu bezala.

## **BATZAR NAGUSIA**

7. Artikulua- Bazkide guztiek osatutako Batzar Nagusia da hauen borondatearen espresio organoa.

Hurrengo hauek dira Batzar Nagusiaren fakultateak:

- a) Erakundearen aktuazio plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo kurtsoko Aurrekontua onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideen hautaketa.
- e) Ohiko eta ez ohiko kuotak ezartzea.<sup>7</sup>
- f) Estatutuen modifikazioa.
- g) Erakundearen disoluzioa.
- h) Beste erakunde batzuekin federazioak zein konfederazioak eta beste batzuk bertan behera uztea.
- i) Ondasunen disposizioa edo besterentzea.
- j) Hala erabaki ezker, ordezkari organoen erremunerazioa adostea.
- k) Beste edozein organo soziali konpetentziak ezartzea.

<sup>3</sup> Ezin daiteke EAetik kanpo egon.

<sup>4</sup> Erakundearen iraupena denbora determinatu baterako izan ezker, iraupena Estatutuetan zehaztu behar da.

<sup>5</sup> Erakundearen Estatutuek gobernu eta administrazio organo desberdinen erregulazioan modelo desberdin bat ezarri dezakete, beti ere Legea eta karakter demokratiko eta plurala errespetatuz.

<sup>6</sup> Erakundeak beste organo kolegiatuak, exekutiboak, aholkularitza-organok edo lan komisiok ezarri ditzake. Hauen konpetentziak eta funtzioak Estatutuetan egon behar lirateke presente.

<sup>7</sup> Akordio bitartez, Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeari delegatu liezaioke fakultate hau.

8. Artikulua- Batzar Nagusia ohiko zein ez ohiko sesioetan batzartuko da.
9. Artikulua- Gutxienez, urtero behin konbokatu behar da Ohiko Batzar Nagusia. .... hiruhilabetekoan izango da eta aurreikusitako 7. artikuluko a), b) eta c) puntuen inguruan erabakiak hartu beharko dira.
10. Artikulua- Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean Ez Ohiko Batzar Nagusiak burutuko dira. Dena dela, asoziatuen %...ak hala nahi ezkerro eta batzarraren arrazoiak eta helburuak azaltzen badira Ez Ohiko Batzar Nagusia konbokatu daiteke ere. Batik bat, hurrengo gaiak jorratuko lirateke:
- a) Modifikazio Estatutarioak.  
b) Erakundearen Disoluzioa.
11. Artikulua- Batzar Nagusien deialdia idatziz egingo da eta bertan lekua, eguna, ordua eta eguneko ordena -jorratu beharreko gaiak- zehaztuko dira. Deialdia egiten den egunaren eta Batzar Nagusiaren egunaren artean gutxienez hamabost eguneko margena egon behar da. Gauzak horrela, lehen deialdiko eta bigarren deialdiko Batzar Nagusien artean ordu beteko diferentzia minimoa egon behar da.
- Lehen deialdira asoziatuen herena hurbildu ezkerro izango dira baliozkoak Batzar Nagusiak (ohikoak edo ez ohikoak izan). Bigarren deialdian bertaratuko pertsona kopuruak ez du ondorioz izango.
12. Artikulua- Batzar Nagusiko erabakiak bertaratutako edo ordezkaturako gehiengo sinplearekin hartuko dira -baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean-. Dena dela, erakundearen disoluzioari, estatutuen modifikazioari, ondasunen dispozizioari edo besterentzeari eta ordezkari organoko kideen erremunerazioari buruzko gaitan baiezkoak gehiengo kualifikatu bat beharko luke. Gauzak horrela, baiezko botoak Batzar Nagusira bertaratutako eta bertan ordezkaturako pertsonen erdia gainditu beharko luke.<sup>9</sup>
13. Artikulua- Bazkideek haien ordezkariak beste edozein bazkideengan delegatu dezakete. Ordezkariak hau idatziz egiaztatuko da eta, sesioa hasi baino ... ordu lehenago, Batzar Nagusiko Ordezkaria honen jakinarazpean egon beharko litzateke. Erakundearen helbide sozialaren herritik kanpo bizi diren bazkideek korreoz egiaztatu dezakete haien ordezkariak.

## ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. Artikulua- Batzar Nagusietako dispozizioei eta zuzendaritzei erreparatu eginez, erakundearen interesak kudeatzen eta ordezkari dituen ordezkari organoa da Zuzendaritza Batzordea. Bazkideak soilik izan daitezke Zuzendaritza Batzordeko kide.
- <sup>10</sup>.....  
osatuko dute Zuzendaritza Batzordea.

<sup>8</sup> Erakundeak beste konpetentzia batzuk eman liezazkioke Batzar Nagusiari, halako klausula baten bidez zehatz mehatz azalduz: "Batzar Nagusiari dagozkio beste organo sozialei espresuki esleitu ez zaizkien konpetentziak".

<sup>9</sup> Erakundeak libreki ezarri dezake quoruma eta erabakiak hartzeko beharrezko gehiengoak. Dena dela, Legeak disoluzio kasuan quorum minimo bat ezartzen duela kontuan izan behar da (asanblean presente daudenen gehiengo absolutua). Estatutuen modifikazioa lantzeko, gehiengo berezi bat ezartzea ohikoa izaten da -asanblean presente daudenen gehiengo absolutua izan ohi da ere-.

<sup>10</sup> Konkretuki adierazi behar da Zuzendaritza Batzordearen konposaketa. Gutxienez, Presidentearen, Ordezkariaren eta Diruzainaren karguak zehaztu behar dira. Gainera, Erakundearen beharren arabera, beste kargu batzuk egon litezke -Presidenteordea, Batzordekidea, etab.-

Kasu honetan, Presidente eta Presidenteorde karguak ezin daitezke Ordezkari eta Diruzain karguekin bateragarriak izan. Gauzak horrela, pertsona bakarrik ezin ditzake hauetako bi kargu izan.

Batzordekiderik egon ezkerro, Zuzendaritza Batzordeak batzordekide kopuru bat zehaztu beharko luke minimo eta maximo bat ezarri.

Aktibitate sozialen beharrezko garapenak hala exijitu ezker, gutxienez .....  
batzartu beharko lirateke.

15. Artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kideek batzar azpimarragarrietara .... aldiz jarraian edo guztira ..... aldiz huts egiten badute, haien kargua utzi bertan behera utzi beharko lukete.
16. Artikulua- Batzar Nagusiak ..... urtetarako hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko karguak. Dena dela, baliogabetze bitartez berriro konbokatu litezke eleksioak.
- Aipatutako karguak <sup>11</sup>..... berrituko dira.
17. Artikulua-izateko: Hurrengo errekerimenduak beharrezkoak dira Zuzendaritza Batzordeko kide
- a) Adin nagusikoa izatea eta eskubide zibilen erabilpena berme osoz burutzeko egoeran egotea. Egungo legegintzarekin ezarritako bateraezintasun motiboetan ez egotea.
  - b) Estatutuetan hala hautatua izatea.
  - c) Erakundeko bazkide izatea <sup>12</sup>.
18. Artikulua- Behin Batzar Nagusiak onartuta egiten da bere Zuzendaritza Batzordeko kargua <sup>13</sup>. Batzar Nagusiak dietak ezarri ditzake Zuzendaritza Batzordeko kideentzat.<sup>14</sup>
19. Artikulua- Hurrengo kasuetan, Zuzendaritza Batzordeko kideek haien karguak utziko lituzkete:
- a) Mandatu epearen bukaera.
  - b) Dimisioa <sup>15</sup>.
  - c) Bazkide izateari uztea edo ezgaitasun kausan jautzea.
  - d) 16. artikuluan adierazi bezala, Batzar Nagusiak adostutako baliogabetzearen aplikazioa.
  - e) Heriotza.
- Kargu uztea a) puntuan aurreikusitako kausagatik bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek haien karguan jarraituko dute hurrengo Batzar Nagusian hautaketa egin arte.
- b), c) d) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak hautaketa probisional bat egingo luke. Ondoren, Batzar Nagusian kargu hau berretsi edo baliogabetuko litzateke, azken kasu honetan kide berri bat hautatuz.
- Organo honen osaketan egondako aldaketa guztiak Erakunde Erregistroan komunikatuko dira.
20. Artikulua- Hona hemen Zuzendaritza Batzordearen funtzioa:
- a) Batzar Nagusiaren araudipean eta kontrolpean, erakundearen ohiko kudeaketa zuzentzea.

<sup>11</sup> Berriketa totala edo partziala gauzatu daiteke, gomendagarriena azken hau izanik -bitzita sozialaren jarraipena hobeto bermatzen baitu-. Berriketa partzialaren kasuan, artikulua hau horrela geratuko litzateke erredaktatuta: "Lehen txandan kideen %50-a berrituko litzateke (kargu konkretuak zehaztu daitezke). Bigarrenean, gainontzekoak".

<sup>12</sup> Zuzendaritza Batzordeko kide izateko bazkide bezala antzinatean bat eskatu daiteke.

<sup>13</sup> Karguaren onarpena askea edo derrigorrezkoa izan daiteke. Bigarren kasuan, hautatuak kargua hartu edo bazkide izateari utzi beharko lioke.

<sup>14</sup> Zuzendaritza Batzordeko kideek ordainsariak jaso ditzakete karguaren funtzioaren arabera. Hala izan ezker, ordainketa hau Estatutuetan jasota geratu behar da. Gauzak horrela, ordainsariak Batzar Nagusian onartutako urteko kontuetan egon behar dira adierazita.

Aurretik aipatutakoaren ildotik, erakundeak erabilpen publikoko kondizioa izan dezan, kideek ezin ditzakete ordainsariak subentzio publikoetatik jaso. Gainera, ordainketak ezin daitezke fondoetan kargatu. Dena dela, Estatutuaren azaldutako termino berdinetan, kideek ordainsariak jaso ditzakete ordezkaritza batzordeko kide bezala burututako zerbitzu desberdinengatik.

<sup>15</sup> Beti ere, karguaren derrigortasuna ezarri ezean.

- b) Erakundeak garatuko dituen aktibitateak programatzea.
- c) Gastuen eta diru sarreraren aurrekontua aurreko urteko kontuen egoerarekin batera Batzar Nagusian aurkeztea.
- d) Batzar Nagusietako eguneko ordena definitzea eta Ohiko zein Ez Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia adostea.
- e) Bazkideen proposamenak eta iradokizunak entzutea eta hauei erantzuna ematen saiatzea.
- f) Estatutuen edukiak interpretatzea eta honen hutsuneak estaltzea. Beti ere, erakundearen inguruko legegintzapean.
- g) Akordio bitartez Batzar Nagusiak ematen dizkion kompetentziak burutzea.

21. Artikulua-                    Presidenteak edo Presidenteordeak erabakiko du zenbatero batzartuko den Zuzendaritza Batzordea. Presidenteak presidituko du batzarra. Bera bertan ez balego, Presidenteordeak ordezkatuko luke. Hauetako biak ez baleude berriz, Batzordeko kide nagusienak presidituko luke batzarra.

Batzordeko akordioak baliozkoak izan daitezzen, gehiengo ados egon beharko litzateke. Honetaz gain, kideetako erdi bat bertaratu beharko litzateke.

Ordezkariek akta idatzi eta transkribatuko du.

## **PERTSONA BAKARREKO ORGANOK**

### **PRESIDENTEA**

22. Artikulua-                    Erakundeko Presidenteak honen ordezkaritza legala onartzen du eta Zuzendaritza Batzordeak zein Batzar Nagusiak hartutako erabakiak burutuko ditu.

23. Artikulua-                    Presidenteari dagozkio hurrengo fakultateak:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren sesioak konbokatzea eta altxatzea. Deliberazioak zuzentzea eta berdinketa kasuan, kalitatezko boto bat hautatzea.
- b) Erakundearen Zuzendaritza Batzordean aktibitate plan bat proposatzea, zereginak sustatuz eta zuzenduz.
- c) Adostutako ordainketak agintzea.
- d) Karakter urgentea duten gaiak konpontzea eta Zuzendaritza Batzordeari hauei buruz hitz egitea.
- e) Akordio bitartez Batzar Nagusiak ematen dizkion kompetentziak burutzea.

### **PRESIDENTEORDEA**

24. Artikulua-                    Presidenteordeak Presidente laguntzeko ardura du eta honek ezin izango balu bere kargua denbora batez jardun, Presidenteordea izango litzateke honen ordezkarria. Gauzak horrela, Presidenteak bere gain uzten dituen fakultateak bete beharko ditu.

### **ORDEZKARIA**

25. Artikulua-                    Ordezkariek inskripzioak jaso eta tramitatuko ditu, fitxategiaren eta Bazkideen Erregistro Liburuaren kudeaketaz arduratuko da eta Akta Liburuaren erredakzioa eta zaintza bere gain egongo da.

Gauzak horrela, Erakundearen legegintzaren konplimentuaz arduratuko da: Erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz, Liburuaren eta artxiboaren edukia ziurtatuz eta Zuzendaritza Batzordean edota helbide sozialean dauden aldaketak komunikatuz.—

<sup>16</sup> Kargu hau ez da derrigorrezkoa, baina honen erregulazioa beharrezkoa litzateke inaktibitate sozialeko kasuetan (Presidentearen ezgaitasun tenporaletan edo absentzia kasuetan adibidez).

## DIRUZAINA

26. Artikulua- Diruzainak enpresaren diru sarrerak eta egindako ordainketak jakinaraziko ditu eta urteko aurrekontua zein aurreko urteko kontuak formalizatuk ditu Zuzendaritza Batzordean aurkeztuz. Ondoren,, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusian aurkeztuko ditu datu ekonomiko hauek.<sup>17</sup>

18

## HIRUGARREN KAPITULUA

### BAZKIDEAK: ONARPEN ETA KLASE ERREKERIMENDUAK ETA PROZEDURAK

27. Artikulua- Erakundeko kide<sup>19</sup> izan nahi dutenek eta hurrengo baldintzak<sup>20</sup> betetzen dituzten pertsonak izan daitezke bazkide:<sup>21</sup>  
:.....  
- Adin nagusikoa edo adin txikiko gazte emantzipatua (obratzeko kapazitateaz).  
:.....  
:.....  
:.....
- Artículo 28.- Erakundeko kide izan nahi dutenek idatziz egin beharko dute eskaria. Erakundeko bi kidek bermatu behar dute bere sarrera eta eskaria Presidenteari idatzi behar zaio. Honek Zuzendaritza Batzordean edota Batzar Nagusian erabakiko du kandidatu honen onarpena edo deuseztapena.
- Artículo 29.- Zuzendaritza Batzordearen ahotsez, Erakundeak ohorezko bazkide izendatu ditzake errekerimenduak betetzen dituzten pertsonak -xede sozialetan haien presentzia fisikoa zerbitzatu ezin dezaketanak hain zuzen-. Bazkide hauen kondizioa ohorezkoa da soilik eta, beraz, ez dute kideen kondizio juridikoa izango. Gauzak horrela, ezin izango dute Gobernu eta Administrazio organoetan parte hartu, betebeharrak guztietatik kanpo egonez<sup>24</sup>.

<sup>17</sup> Erakundeak Batzordekide-Kontalari bat izango balu, bera arduratuko litzateke Kontabilitate Liburuaz, hauen zaintzaz eta balantzearen zein aurrekontuaren jarraipenaz. Figura hau Erakundearen ez balego, Estatutuaren dioen bezala, diruzaina arduratuko litzateke honetaz.

<sup>18</sup> Aurretik aipatutako karguez gain, Erakundearen beste hainbat kargu egon litezke: bibliotekaria, argitalpenen arduraduna, gerente zuzendaria, etab.

<sup>19</sup> Pertsona fisikoak edo juridikoak izan litezke (publikoak zein pribatuak). Pertsona fisikoaren kasuan, adin nagusikoak edo 14 urte baino gehiagoko adin txikiko gazte emantzipatuak izan behar lirateke (gurasoen onarpenaz eta haien kapazitatea dokumentalki egiaztatuz).

<sup>20</sup> Bazkideak pertsona fisikoak badira adin nagusikoak edo adin txikiko gazte emantzipatuak izan behar dira nahitaez (haien eskubideen jarduerarako ezin daitezke kondizio legalak eratu). Hamalau urte baino gehiagoko umeak bazkide izan daitezke, beti ere gurasoen onarpenaz eta haien kapazitatea dokumentalki egiaztatuz. Dena dela, bazkide hauek ezingo dute Zuzendaritza Batzordean parte hartu adin nagusikoak izan arte. Bazkideak pertsona juridikoak badira, haien organo kompetentearen onarpena beharko dute. Honetaz gain, haien organo errektorearen akordioa beharko dute ere eta bertan haien borondate asoziatiboa manifestatuko beharko da, haien izenean arituko diren pertsonen hautaketa espezifikatuz.

<sup>21</sup> Erakundeak askatasun osoz erabaki dezake bazkide izateko bete beharreko baldintzak (adin nagusitasuna eta obratzeko kapazitatea legalki exijitzen dira).

<sup>22</sup> Onarpen eskubideak asebate beharko dira bazkide kondizioa eskuratzeko. Zuzendaritza Batzordeak hala erabaki ezkerro, bermea eta idatzizko eskaera bertan behera utzi daitezke.

<sup>23</sup> Ikerketa erakundeetan eta erakunde zientifikoetan ohikoak diren "ohorezko" bazkideak dira hauek:

<sup>24</sup> Gainera, bazkideez gain erakundeak hurrengo bereizketak egin ditzake:

- Fundatzaileak (Sortze Akta izenpetu zutenak). Bereizketa honen garrantzia ohorezkoa da praktikoa baino gehiago.
- Zenbaki bazkideak eta ordinarriak, bazkide kopuru limitatu bat besteen artean bereiziz. Bereizketa hau oso ohikoa da ikerketa erakundeetan.
- Ohorezkoak (29. artikuluan azalduta)

## BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. Artikulua- Pertsona asoziatu guztiek hurrengo eskubideak dituzte:
- 1) Erakundeen Legearen edo Estatutuen aurka doazen akordio edo aktuzioei kontra egitea. Honen inguruan, akordioari buruzko edukia ezagutzeko aukera behin izanda, berrogei eguneko epean egin behar zaio kontra.
  - 2) Gobernu eta ordezkari organoen osaketari buruz informatuta egotea: diru sarreren eta gastuen kontuen egoera, Entitatearen aktibitatearen garapena...
  - 3) Edozein momentutan erakundeko gainontzeko kideen identitatea jakitea.
  - 4) Batzar nagusietan boto eta hitz eskubidea. Gauzak horrela, hitzaldia guztiei eskaintzen zaie hitzaldiak emateko aukera.
  - 5) Estatutuak dioen bezala, zuzendaritza organoetan parte hartzeko aukera - hautesle eta hautagai izanez-.
  - 6) Bazkideen fitxategian egotea eta Erakundearen ikurra (egon ezker) erabiltzeko aukera izatea.
  - 7) Estatutuen eta Barne Erregimenaren Araudiaren (egon ezker) kopia bat izatea. Zuzendaritza organoen aurrean iradokizunak eta kexak aurkezteko aukera izatea.
  - 8) Akto sozialetan eta kolektiboetan parte hartzea. Bazkideen erabilpenerako elementuez disfrutatzea (lokal soziala, liburutegia...).
  - 9) Disziplinazko neurriak hartu baino lehen, arrazoiei buruz informatua izatea. Bazkide bezala, betebeharrak alde batera uzteak eragin dezake soilik santzioa.
  - 10) <sup>25</sup>
31. Artikulua- Bazkideen betebeharrak:
- a) Erakundearen xedeak betetzeko bere konkurtso aktiboa aurkeztea.
  - b) Gastuen sostenimenduan laguntzea kuoten, derramen eta Batzar Nagusiak erabakitako beste ekarpenen ordainketarekin.
  - c) Estatutuak eta Erakundearen organo errektoreek hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

## SANTZIO-ERREGIMENA

32. Artikulua- Bazkideak santzionatuak izan daitezke Estatutuak, Batzar Nagusiko akordioak edo Zuzendaritza Batzordeko erabakiak behin baino gehiagotan hausteagatik.
- Santzioak askotarikoak izan daitezke, eskubideen suspentsiotik (15 egunetik 30 egunera), separazio definitibora -34 artikulutik 37 artikulura (biak barne)-.
- Presidentziak ikerketa bat zabaldu dezake santzionatuak izan litezken jarrerak aztertzeko. Ordezkaritzak burutuko lituzke akzioak eta, ondoren, dagozkion neurriak proposatuko lizkioke Zuzendaritza Batzordeari. Santzioen inposaketa Zuzendaritza Batzordearen gain egongo da.
- Akordio honi buruzko errekurtsua aurkeztu daiteke Batzar Nagusian.

- 
- d) Babesleak. Baliabide ekonomikoak eskaintzen dituztenak, erakundearen parte hartze sozialik izan gabe.
  - e) Bazkide jubenilak. 14 urte baino gehiagokoak izan behar dira. Beraz, bazkide izateko ordezkari legalen onarpena beharko dute. Nahiz eta Erakundearen hitza eta botoa izan, adin nagusikoak izan arte ezin dira zuzendari karguetan aritu.

<sup>25</sup> Separazio boluntarioen kasuan eta Estatutuek hala jaso ezker, bazkide izandakoei dagozkie haien ondarezko parte hartzea (ohiko kuotez aparte egindako ekarpenak).

## USTEZKOA ETA BAZKIDE KONDIZIOAREN GALTZEA

33. Artikulua- Bazkide kondizioa hurrengo kasuetan galduko da:
1. Heriotza (edo disoluzioa pertsona juridikoen kasuan).
  2. Separazio boluntarioa<sup>26</sup>.
  3. Zuzendaritza Batzordeak adostutako santzio-separazioa. Hona hemen adibide batzuk: Estatutuetan, Batzar Nagusian edo Zuzendaritza Batzordean adostutakoaren arau hauste larria, errepikatua eta deliberatua,
34. Artikulua- 33.3. artikuluko edozein ustezkotan jausi ezkerro, informazioa eskuratzeko eta aktuazioak artxibatze helburuaz, Presidentziak bazkide honi jarraipen bat egin diezaion eskatu diezaioke Ordezkaritzari. Honetaz gain, espediente zigortzaile bat ezarri diezaioke bazkideari.
35. Artikulua- Behin 33.3 artikuluko arau hauste bat gertaerekin demostratuta, Ordezkaritzak idatzi bat entregatuko dio pertsona interesatuari inputatzen zaizkion karguak azalduz. Pertsona interesatuak erantzuteko eskubidea izango du .....arte bere defentsan egoki deritzona alegatuz. **Egun/Aste/Hilabete** hauek pasa eta gero, Zuzendaritza Batzordearen lehen batzarraren eguneko ordenean egongo da gai hau. Bertan .....ren eta honen kideen quorumarekin jardutea adostuko da<sup>27</sup>.
- Separazio akordioa pertsona interesatuari notifikatuko zaio, hurrengo Ez Ohiko Batzar Nagusian errekurtsioa aurkezteko aukera duela adieraziz (Ez Ohiko Batzar Nagusia ez bada hiru hilabetetan konbokatzen, gai hau argitzeko helburuaz antolatu beharko da). Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak pertsona erruztatua bazkide bezala suspenditu dezake -erruztatua Zuzendaritza Batzordeko kide balitz, bere kargua bertan behera utzi beharko luke-.
- Separazio espedientea Batzar Orokorrean joratu ezkerro, akordio batera heltzeko helburuaz, Ordezkariek erruztatuaren informaren laburpen bat idatzi beharko du Batzar Nagusiak egoerari buruz berri izan dezan.
36. Artikulua- Separazio akordioak arrazoizkoa izan behar du beti eta pertsona interesatuari denboraz komunikatu behar zaio. Gauzak horrela, prozesua Legearen eta Estatutuen aurka doala uste ezkerro, Tribunaletan errekurtsioa aurkezteko aukera eskaintzen zaio erruztatuari.
37. Artikulua- Bazkide batek Erakundearekin bere separazioa komunikatzean, boluntarioki edo santzio modura, Erakundearekin pendiente dituen obligazioak bete beharko ditu (hala izan ezkerro noski).

### LAUGARREN KAPITULUA

#### SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

---

<sup>26</sup> Ustezko honetan ondare partaidetzaren likidazio eskubidea ezarri daiteke estatutarioki gauzatutako ekarpenei dagokienez (ez dute ohiko kuotekin zer ikusirik), beti ere bitartekoek ez badute kalterik jasaten. Ez bada klausula estatutarioa ezartzen, bazkideek erakundea boluntarioki uztean ez lukete ondare soziala erreklamatzeko eskubiderik izango.

Askatasun printzipioa dela eta, bajaran eman nahi direnei ez zaie errekerimendu berezirik eskatzen. Dena dela, eskaera idatziz aurkeztu beharra dago. Idatzi honek ez du erantzunik behar izaten, aldebakarreko akto bat baita.

Denborazko baja: egoera hau Estatutuetan aurreikusi daiteke onarpen eskubideko dimisioen bitartez.

<sup>27</sup> Erdia eta bat gehiago seinalatu daiteke edo 2/3.

38. Artikulua- Erakundearen hasierako ondarea ..... eurokoa da.<sup>28</sup>
39. Artikulua- Hauek dira Erakundeak aktibitate sozialen garapenerako aurreikusitako baliabide ekonomikoak:
- a) Batzar Nagusiak finkatutako sarrera kuotak.
  - b) Batzar Nagusiak finkatutako kuota periodikoak.
  - c) Ondasun produktuak, dagozkion eskubideak, subentzioak, legatuak eta legalki jaso litezken dohaintzak.
  - d) Zuzendaritza Batzordeak erabakitako legezko aktibitateen bitartez Erakundeak lortutako diru sarrerak, beti ere xede estatutarioen barruan.

Kurtso asoziatibo eta ekonomikoa urte bakarrekoa izango da eta honen itxiera urte bakoitzeko .....an ospatuko da.

Aktibitate ekonomikoaz eta zerbitzuen prestazioaz lortutako benefizioak, Erakundearen xedek betetzeko izan behar dira erabiliak. Hori dela eta, ezin daiteke dirua asoziatuen, bizilagunen edo familiarren artean banatu. Gainera, irabazte-smoz dirua pertsona fisiko zein juridikoei dohain uztea debekatuta dago.

#### BOSGARREN KAPITULUA

##### ESTATUTUEN MODIFIKAZIOA

40. Artikulua- Estatutuen modifikazioa helburu horrekin konbokatutako Batzar Nagusi baten izan behar da adostua. Horretarako Zuzendaritza Batzordeak proposatu beharko luke gaia edo, bestela, bazkideen %...k eskatu beharko luke gaia. Gauzak horrela, Zuzendaritza Batzordeak hiru pertsonako Ponentzia bat hautatuko luke. Honek modifikazio proiektua erredaktatuko luke zuzentzaileak jarraituz eta proiektuaren epea finkatuz.
41. Artikulua- Behin modifikazio proiektua erredaktatuta eta epea finkatuta, Presidentek hurrengo Zuzendaritza Batzordearen eguneko ordenean sartuko luke. Bertan onartu egingo litzateke eta Ponentziara bidaliko luke beste ikerketa bat egiteko.
- Onartua izango balitz, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Nagusiaren eguneko ordenean sartuko luke.
42. Artikulua- Batzar Nagusiaren deialdia Estatutuen modifikazio testuarekin aurkeztuko litzateke. Gauzak horrela, bazkideek Ordezkaritari nahi dituzten emiendak bidaltzeko aukera izango lukete. Emiendak Ordezkaritari zortzi eguneko margenez entregatu ezkerro, guzti hauek Batzar Nagusian aurkeztuko lirateke.
- Emiendak indibidualki edo kolektiboki formulatu daitezke eta idatziz entregatu beharko dira. Emienden bozketa egin ondoren, Batzar Nagusiak modifikazio estatutarioari buruzko akordioak erabakiko lituzke. Guzti hau Erakundearen Erregistro Orokorrean erregistratu beharko litzateke.

#### SEIGARREN KAPITULUA

##### ERAKUNDEAREN DISOLUZIOA ETA ONDARE SOZIALAREN APLIKAZIOA

43. Artikulua- Erakundea hurrengo kausengatik disolbatuko da:
- 1. Bazkideen borondateagatik, hau da Batzar Nagusian gehiengo absolutua lortuta.
  - 2. Kodigo Zibileko 39. artikuluan determinatutako kausengatik.
  - 3. Sententzia judizialengatik.
44. Artikulua- Erakundea disolbatu ezkerro, disoluzioa erabaki duen Batzar Nagusiak ..... pertsonako Komisio Likidatzaile bat osatu behar du. Komisio honetan Zuzendaritza Batzordeko kideren bat egon behar da fondoez arduratzeko.

---

<sup>28</sup> Asoziazioak sortze ondarea eduki ezean, hala adierazi behar da.



Behin bazkide eta bitartekoen obligazioak beteta, soberako ondare soziala..... entregatuko zaio.<sup>29</sup>

## **DISPOSIZIO IGAROKORRA**

Konstituzio Aktan figuratzen duten Zuzendaritza Batzordeko karakter probisionaleko kideen izendapena lehen Batzar Nagusian onartu beharko da.

### DISPOSIZIO FINALA

Batzar Nagusiak Barne Erregimeneko Araudia eta Estatutuak onartu litzake. Gainera, ez dira hauen preskripzioak inola ere ez modifikatuko.

<sup>29</sup> Soberan dagoen ondare soziala ez da inola ere ez bazkideen artean banatuko. Erakundearen irabazi-asmorik gabeko karakterra aldaezina da. Beraz, beste irabazi-asmorik gabeko erakunde bati egin lekioket dohaintza.

Disoluzio kasuetan, asoziatuen separazio boluntarioari buruz aurreikusitakoa aplikatu daiteke. Asoziatuen separazio boluntarioen edo erakundeen disoluzio kasuetan, bazkideek haien ondare partaidetza berreskuratu dezaketela jasotzen dute Estatutuak (Estatutuaren finkatutako kuotak, kondizioak eta limiteak ez daude barne). Beti ere, ondare murrizketak ez duela bitartekoengan kalterik suposatuko ulertzen da.

Kasu honetan, bazkideei haien ekarpenak entregatzerakoan, soberakinen noranzkoak ezin dezake erakundearen irabazi-asmorik gabeko karakterra alde batera utzi.